

ATXILOKETA EPAILE BAT EGOTEA ETA ABOKATUA BEREHALA EDUKITZEA DIRA BI ATAL NAGUSI

Errugabetasun ustea babesteko asmoa dauka Guigou legegaiak

Auzipetuen ustezko errugabetasuna sendotzen duen legeaia ontzat hartu zuen atzo Frantziako Ministroen Kontseiluak. Proiektuaren arabera, atxiloketa epaile batek du ebatziko auzipetu bat giltzapean jarri behar den ala ez, bere auzia gertatu bitartean.

Allande Sokarros / Baiona

ELISABETH GUIGOU Justizia ministroak Ministroen Kontseiluan atzo aurkeztu zuen legegaiaren xedapen nagusietatik bat —hau da, instrukzio epaileaz kanpo bigarren jule batek erabaki dezan auzipetu bat giltzapean jarri edo ez— ez da erabateko berrikuntza bat. Izan ere, 1992an, Michel Vauzelle (PS) Justizia ministro zen garaian, indarrean jarria izan zen.

Alabaina, 1993an gertatu ziren Legebiltzarrerako hauteskundeak eskuineko indarrek irabazi ostean, neurri hori deuseztatu egin zuten eta aurreko sistemara itzuli. Garai hartan berean, eskuineko epaile sindikatuek, hots bozketetan gehiengo daukan USMk eta mutur eskuinetik nahiko hurbil den APMk, gogor kritikatu zuten «askapenen epaile bat» izate hura. Oraingoan ere, sindikatu berek dute gaitzetsi magistratu funtzio berri honen sortzea; aldiz, Syndicat de la Magistrature (SM) ezkerreko elkarteak ontzat jo du.

Aldi honetan, Guigouren proiektuan, ez diote askapenen epailea deitu, atxiloketa julea baizik, baina, hala ere, betekizun bera izango luke, hau da, aurkeztuko izango auzipetu bat giltzapean jarri ala ez erabakitzea, haren auzia gertatu bitartean. Prozesuaren une horretan, Poliziaren ikerketako datuak besterik ez ditu eskuko izango atxiloketa epaileak bere ebazpena hartzeko. Normalean, auzipetu baten kasuaz arduratzen den instrukzio epailearen iritzia ez du kontutan hartu beharrik izango. Hain zuzen ere, eskumen horren galtzea dute begi txarrez ikusten eskuineko epaileek, haien iritzian, auzipetu bat aske uzteak eragozpenik ekarriko baitu sumarioaren bideratzean. Ezen, auzibideak dirauen denboran auzipetu bat giltzapean jartzeko



Defentsako abokatuak, Perpinyako jandarma batzuen aurka egindako epaiketean.

LIONEL BONAVENTURE / EPA

argudioen artean, afera bateko lekukoei presio egiteko arriskua edo ihesari emaitza ezarria da sarritan aurrean.

'Terrorismo' edo droga auzietan abokaturik ez lehen ordutik • Guigou proiektuaren beste xedapen batek, berriz, Polizia du kezkatzen: atxilotutako batek arrastatzaren lehen ordutik abokatu baten laguntza jasotzeko eskubi-

dea izateak. Haatik, neurri horri salbuespen nabariak erantsi dizkio Guigou legegaiak, zeren eta borroka armatu kontuetan, edo droga trafikoa zein gaizkiletza handiari lotutako kasuetan, abokatu bat ikusteko eskubidea atxiloketaren hogeigarren orduan baino ez baita onartua izango; gaur egungo egoeran bezala, beraz, Eskubide horren murrizketa salatu dute, hain

zuzen, abokatu sindikatuek. Eta defendatzaile ezaguna den Jean-Louis Pelletierek Frantziako telebistetan atzo erran zuenez, «bi mailatako justizia bat» finkatu da atal honetan.

1999. urtearen lehen sei hilabeteetan lege bihur litekeen proiektu honek beste asmo nagusi bat ere badauka: auzibide baten bideratzeko denbora gutxitzea eta auzipetutako edonor «epe onargarri batean» epaituta izatea. Izan ere, Frantzia behin baino gehiagotan salatuta izan da Giza Eskubideen Europako Auzitegian, auzi sumario luzeegiak jasanarazteagatik epaitu aurretik giltzapean jarri. Kasu ohargarriena Felice Tomasi korsikar preso politikoarena da, bost urte baino gehiagoz espetxeraturik egon baitzen, epaitu eta kondenarik gabe utzi arte. Legegaiak dioenez, instrukzio jule bati galdeginen zaio aurreikusitako egutegi bat aurkez dezan bere ardura hartuko duen sumario bakoitzarentzako.

Buruhaustek prentsarentzat

ATZO aurkeztutako legegaiaren beste atal batek prentsari dio buruhausterik sortzen. Xedapen honen arabera, eskutrabak jarritako pertsonen argazki edo telebista irudiak debeku izango lirakeke, bai eta «jendeen duintasunari kalte egin lezaketen irudiak» ere. Asmo hau goresgarritzat har baliteke ere, komunikabideek aplikatzeko nahiko zaila ikusten da. Beste kontu baten-gatik ere prentsak kezkarik izan dezake; hau da auzibidearen isilpean atxikitzeari dagokionez. Orain arteko lege hutsuneari aurre egiteko, Guigou legegaiak sumarioaren atal batzuk nahi-tara plazaratzeko aukera finkatzen du, baldin eta auzipetutakoak onartzen badu. Alabaina, proiektuaren eztabaidatzeaz balia litezke diputatu batzuk, prentsaren askatasuna murrizteko asmoz.

Neurri nagusiak

Hauek dira Elisabeth Guigou Justizia ministroak atxilotuen errugabetasun presuntzioa sendotzeko proposatutako neurrietako batzuk:

✱ **Atxiloketa epailea:** Aurre-rantzean, atxiloketa epaileak erabakiko du atxilotuek egoera horretan jarraitzen dutenetz. Instrukzio epaileak bere iritzia emango du, baina ez du zertan erabakigarria izan.

✱ **Abokatuaren laguntza:** Atxilotzen duten une beretik eduki ahal izango du edonork abokatuaren laguntza, Gaur egun 20 ordu itxaron behar du. Salbuespena «terrorismoarekin» edo droga trafikoa arekin lotutako delituek akusatuen izango da, orain arteko moduan jarraituko baitute.

✱ **Atxilotuen irudiak:** Atxilotuak ustez errugabeak direnez, komunikabideek ezingo dituzte haien irudi txarrak kaleratu. Horrela, debekatu izango dute eskubidurik jarrita dituzten atxilotuak erakustea. 100.000 liberako isuna ordainduko dute arau horren hausleek.

✱ **Atxilotuen erantzuna:** Auzipetuak berari buruz komunikabideek esandakoari erantzuteko eskubidea izango du, eta prokuradorearen laguntza.

✱ **Lekuko laguntzailea:** Auzipetuek abokatu baten laguntza izango dute —leku-laguntzailea— eta hari esker dosierren berri izango dute.

✱ **Behin-behineko espetxeratzetza:** 15 urte arterainoko espetxe zigorra jaso dezaketen delituen ustezko egileek gehienez bi urte egingo dituzte badaezpadako espetxeratzetza egoeran. Behin-behineko espetxeratzetza hori hiru urtera arte luzatuko da delitu larriagoetan.

✱ **«Publizitaterako leihoak»:** Instrukzio sekretuaren etengabeko bortxaketak eragozteko, «publizitaterako leihoak» zabalduko dira. Hau da, akusatuen uste badu kome-ni zaiola akusazio ganbaran gertatutako eztabaidaren berri ematea, eta epaileak aurka ez badaude, informazioa emango zaie komunikabideei. Halaber, fiskaltzak agiriak kaleratu ahal izango ditu esku artean dituen afe-rez. X

PSIKOTERAPIA KURTSOAK

1.- GESTALT TERAPIA FORMAZIOARAKO KURTSO BASIKOA.

- ✓ Psikologo, Mediku, Gizarte Laguntzaile...
- ✓ 9 asteburuko tailerrak urtean. 3 urte.

2.- KORPORAL TERAPIA FORMAZIOARAKO KURTSOA

- ✓ Psikologoentzat.
- ✓ 5 asteburuko tailerrak urtean. 2 urte.

INFORMAZIOA: Belén Peñalba Sobrini
943/ 21 09 32 (utzi mezua kontestagailuan, deituko dizut).



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak diruz lagundutako egunkaria

VITORIA-GASTEIZKO

UDALA

AYUNTAMIENTO

DE VITORIA-GASTEIZ

ARGIBIDEETARAKO UDAL BULEGOA

OHARRA

Irailaren 21ean, astelehenez, udal langileen patrioiaren eguna dela eta, udal bulegoak itxita egongo dira, salbu eta Espainia plazako eta Europa, Judimendi, Iparralde, Lakua nahiz Hegoalde gizarte-etxeko Herritarrei Laguntzeko Bulegoak; **9:30etik 13:30era eta 16:30etik 19:30era bitartean** egongo dira zabalik horiek.

Herritarrei Laguntzeko 010 Telefonoa ere, zerbitzuan izango da egun horretan, honako ordu hauetan: **8:00etatik 20:00etara.**

Vitoria/Gasteizen, 1998ko uztailean

